



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/06/02

Batzar Nagusiek eskaria egin dabe, Bizkaian hiltegiak martxan jartea erreztuko dauen arautegia onesteko

Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez onetsi dabe gaur EH Bilduk aurkeztu dauen arauz besteko proposamena, eskaria egiteko Eusko Jaurlaritzari, haragiaren sektorea malgutzeko dekretuaren barruan, “eskala txikiko espezie anitzeko hiltegiak, piezakatze gelak eta haragi obradreak erreztera bideratutako arautegia gauzatu daian”.

“Sektoreak Lurraldean daukan garrantzi ekonomikoa, Bizkaian dagon abeltzaintzako ustiapen kopurua, ustiapen horreen dimentsino txikiak eta errentagarritasunerako merkaturatze zirkuitu laburrek daukien garrantzia kontuan izanda”, EH Bildutik uste da “oso garrantzitsua” dala Eusko Jaurlaritzak aurrera atera behar dauen haragi produktuen osasun malgutasunerako dekretua garatzea.

Mikel Kormenzana EH Bilduko batzordekideak eskaria egin deutso Eusko Jaurlaritzari, Euskadiko haragi sektorearen arautegi espezifikoarene onespina arindu daian, Bizkaian “sakrifiketako eta eraldaketarako” azpiegiturak martxan jarri ahal izateko.

Batzarretako talde guztiak koalizino abertzalearen ekimenaren alde agertu dira. Euzko Abertzaleak taldeko (EAJ-PNV) Jesús Lekerikabeaskoa batzordekideak bere taldearen aldeko botoa justifikau dau, proposamenak, azken finean, Eusko Jaurlaritzari, maiatzaren 17ko 76/2016 Dekretuaren barruan garatzen ari dan arautegiakaz daborduko gauzatzen ari dan politikak “bultzatzea” eskatzen dauelako.

Batzordekide jeltzaleak azpimarratu dauenez, Euskadiko Autonomia Erkidegoa izan zan Estatu osoan Europako jarraibideak jarraitu ebazan lehenengoa, Euskadiko nekazaritza-elikadura ekoizpenaren hainbat arloko higie-ne osasun eskakizunen egokitzapenerako baldintzak ezarten dituan dekretuak onetsiz. EAJ-PNVko batzordekidearen eretziz, Gasteizko Jaurlaritzak onetsi ditu daborduko “arrautzetarako eta esnekietarako” arauzko testuak, eta denpora gitxi barru onetsiko ditu “ogiarne eta barazkien” ingurukoak.

EZEZKOA BIZKAIA GLISOFATORIK ETA TRANSGENIKORIK BAKO GUNE IZENDATZEARI

Beste alde batetik, EH Bilduk arauz besteko beste ekimen bi ekarri ditu Bizkaiko Batzarretara, Bizkaia glisofatorik eta transgenikorik bako gune izendatzeko. Proposamen biak baztertu egin dira, EAJ-PNVk, PSE-EEK, PPK eta Talde Mistoak kontrako botoa emon dabelako. Podemos Bizkaia izan da koalizino abertzalearen planteamentuen alde agertu dan bakarra.

Glisofatoaren, “munduan gehien erabilten dan” bedar-hiltzailearen, kasuan, koalizino abertzaleak mahai gainera ekarri dituan hainbat azterlanek adierazoten dabenez, gai hori EBN aztertu diran pertsona guztien gorputzean dago, eta gizakien “minbizia” eragiten dau. “Hil egiten dau”, Kormenzanak esan dauenez. Podemos Bizkaiak egin dauen moduan, EH Bildu gai hori baztertzearen alde agertu da, “alternatiba ekologikoak egon badagozalako”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Batzarretako gainerako taldeak, barriz, erabilten jarraitzearen alde agertu dira, Europar Batzordeak baimentzen dauen gaia dalako. “Kontrakoa esaten daben azterlanak be badagoz”, esan dau Talde Mistoko Arturo Aldecoak, EH Bilduk eta Podemosek defendidu dituen tesien kontra agertuz. Azterlan horreen artean, joan dan martian Gai eta Nahasketa Kimikoen Agentzia Europarrak (ECHA) aurkeztutakoa aitatu dau Marimar Rodríguez batzordekide sozialistak. Bertan adierazoten denez, “ez dago ebidentzia zientifikorik glifosatoa minbizi eragile dala esateko”.

EAJ-PNVtik, Zuriñe Argatzak adierazo dau bere taldea, izatekotan, “erabilerea murriztearen” aldekoa dala. Hori dala eta, Aldundiak “ezinbesteko kasuetan” baino ez dau erabilten, espezie inbaditzaileak deuseztatzeke, adibidez, produktua “eraginkorragoa” dalako. Foru Aldundiak gomendioa egin deutse Udalei eta beste erakunde batzuei, bedar-hiltzaile horren erabilerea murriztu daien

Foru Gobernua eusten daben talde biek transgenikoen kontrako proposamenaren alde agertzeko ezezkoari jagokonez, Eusko Jaurlaritzak urtarilean hasi eban prozesua errespetau behar dala esan dabe EAJ-PNVk eta PSE-EEK. Prozesu horretan eskaria egiten jako Ministerioari, Europar Batzordearen aurrean egin beharreko gestinoak egin daizan, Euskadiko Autonomia Erkidegoa transgenikorik bako gune izendatua izan daiten.

GAZTELUGATXEKO DONIENERAKO PLANAREN IDAZKETEA

Arauz besteko proposamenen eztabaidaren aurretik, Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako diputatua batzordera etorri da, Talde Mistoak egindako erantzun-eskeari erantzuteke, Foru Aldundiak aurrera eroan behar dauen strategiaren barri emoteko “bisitarien larregizko presinoa dala eta Gaztelugatxeko Donieneko ingurune naturalean eta paisajea egon daitekezan eraginak saihesteko”.

Unzuetak batzordearen aurrean esan dauenez, joan dan maiatzaren 23an Gaztelugatxeko Donieneko Jarduketarako eta Kudeaketarako Plan Integrala egitea agindu jakon Deloitte kontsultoretza etxeari (bederatzi eskintza aurkeztu ziran), 180.000 euroren truke eta sei hilebetetan egiteke. Dokumentu hori izango da inplikauta dagozan administrazioek “epe ertain eta luzeko” neurriak ezarteko oiarria, leku horren “ingurumen arloko babesa” eta “turismorako posizionamendu iraunkorra” bateratzeko.

Oposizionoko taldeak bat etorri dira, plana “berandu” ailegau dala esatean, Gaztelugatxeko Donieneko “arazoa” “aspalditik datorrelako” eta, beharbada, udan larriagotu egingo dalako, turista gehiago etorri daitekezalako. Hori dala eta, aurreikusten dan turismoaren presinoa arinduko daben “preminazko” neurriak eskatu ditue. Izan be, Arturo Aldecoak adierazo dauenez, aurton presino hori larriagoa izango da, garagarriean hasiko dan “Tronu dema” saioaren denporaldi barriak eragingo dauen dei-efektua dala eta. Unzuetak zehaztu dauenez, beharrezkoa bada, neurri zuzentzaileak jarri ahal izango dira martxan plana egiten ari dan bitartean.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
02/06/2017

Las Juntas Generales piden que se apruebe un reglamento que facilite la implantación de mataderos en Bizkaia

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado hoy, por unanimidad, una proposición no de norma presentada por EH Bildu que insta al Gobierno Vasco a que, dentro del decreto de flexibilización para el sector cárnico, “desarrolle el reglamento dirigido a facilitar los mataderos multiespecie, salas de despiece y obradores cárnicos a pequeña escala”.

“Dada la importancia económica del sector en el Territorio, el número de explotaciones ganaderas en Bizkaia, las reducidas dimensiones de las mismas y la importancia de los circuitos cortos de comercialización para su rentabilidad”, desde EH Bildu han considerado de “vital importancia” el desarrollo del decreto de flexibilización sanitario para los productos cárnicos que debe sacar adelante el Ejecutivo vasco.

El apoderado de EH Bildu Mikel Kormenzana ha pedido al Gobierno vasco que acelere la aprobación de un reglamento específico para el sector cárnico vasco que permita establecer infraestructuras “de sacrificio y transformación” en Bizkaia.

Todos los grupos junteros han apoyado la iniciativa de la coalición abertzale. El juntero del grupo Nacionalistas Vascos (PNV) Jesús Lekerikabeasko ha justificado el voto afirmativo de su grupo porque la proposición supone en realidad un “espaldarazo” a las políticas que está llevando a cabo ya el Ejecutivo vasco desarrollando reglamentos en el marco del Decreto 76/2016, de 17 de mayo.

El apoderado jeltzale ha destacado que la Comunidad Autónoma Vasca fue la primera del Estado en seguir las directrices europeas aprobando un decreto que establece las condiciones para la adaptación de los requisitos higiénico-sanitarios de diversos ámbitos de la producción agroalimentaria de Euskadi. Según el juntero del PNV, el Ejecutivo de Gasteiz ha aprobado ya textos regulatorios para “los huevos y los productos lácteos” y pronto los tendrá “para el pan y las verduras”.

NO A DECLARAR BIZKAIA "ZONA LIBRE" DE GLISOFATO Y TRANSGÉNICOS

Por otro lado, EH Bildu traía a la Cámara vizcaína sendas iniciativas no de norma para que Bizkaia se declarase “Zona Libre” de glisofato y transgénicos. Ambas proposiciones han sido rechazadas al votar en contra PNV, PSE-EE, PP y Mixto. Solo Podemos Bizkaia ha apoyado los planteamientos de la coalición abertzale.

En el caso del glisofato, el herbicida “más utilizado en el mundo”, el representante de la coalición abertzale ha traído a colación diversos estudios científicos que advierten de que esta sustancia está presente en el cuerpo de todas las personas sometidas a análisis en la UE y que es “cancerígena” para el ser humano. “Mata”, según Kormenzana. Al igual que Podemos Bizkaia, EH Bildu ha apostado por su eliminación ya que “existen alternativas ecológicas”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

El resto de formaciones de la Cámara han defendido, en cambio, que se siga usando ya que es una sustancia permitida por la Comisión Europea. “Hay estudios que dicen lo contrario”, ha dicho Arturo Aldecoa del grupo Mixto, contraponiéndose a las tesis defendidas por EH Bildu y Podemos. Entre estos estudios, la apoderado socialista Marimar Rodríguez ha citado el hecho público el pasado mes de marzo por la Agencia Europea de Sustancias y Mezclas Químicas (ECHA), en el que se concluye de que “no existen evidencias científicas para clasificar al glifosato como cancerígeno”.

Desde el PNV, Zuriñe Argatxa ha advertido que su grupo es partidario, en todo caso, de “reducir su uso”, de ahí que la Diputación limite su utilización a “casos imprescindibles” como la erradicación de especies invasoras, porque es el producto “más efectivo”. La institución foral ha recomendado a Ayuntamientos y otras instituciones para que reduzcan el uso de este herbicida.

En relación a la negativa de los dos grupos que sustentan al Gobierno de apoyar la proposición en contra de los transgénicos, PNV y PSE-EE han justificado su negativa de cara a que se respete el proceso iniciado por el Gobierno vasco en el mes de enero, en donde se insta al Ministerio a que realice las gestiones oportunas ante la Comisión Europea para que la Comunidad Autónoma Vasca sea declarada zona libre de transgénicos.

REDACCIÓN DEL PLAN PARA SAN JUAN DE GAZTELUGATXE

Previamente al debate de las proposiciones no de norma, la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha comparecido para responder al grupo Mixto sobre la estrategia que la Diputación iba a desarrollar para “evitar las afecciones al medio natural y paisajístico en San Juan de Gaztelugatxe por la presión excesiva de visitantes”.

Unzueta ha informado a la Cámara de que el pasado 23 de mayo se adjudicó a la consultora Deloitte (entre nueve ofertas) por 180.000 euros y un plazo de ejecución de seis meses, la elaboración del Plan Integral de Actuación y Gestión de San Juan de Gaztelugatxe. Este documento será la base para que las distintas administraciones implicadas establezcan medidas “a medio y largo plazo” en la zona para conjugar la “protección ambiental” del enclave y un “posicionamiento turístico sostenible”.

La oposición ha coincidido en señalar que el plan llega “tarde” debido a que el “problema” de San Juan de Gaztelugatxe “viene de lejos” y es posible que se agrave este verano por la llegada de mayor número de turistas. Por eso, han pedido medidas “urgentes” que palien la previsible presión turística, que se agravará este año, según Arturo Aldecoa, por el efecto llamada del estreno de la nueva temporada de la serie Juego de Tronos, a mediados del mes de julio. Unzueta ha matizado que durante la fase de elaboración del plan se podrán implementar medidas correctoras si es necesario.